Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Atetz

Aurkibidea

Udalerria: Atetz

Sarrera



Ultzamaldea eskualdeko udalerria. Aroztegi, Beratsain, Beuntza, Eguarats, Eritze eta Ziganda herriek osatzen dute. Euskaldun zahar banaka batzuk geratzen dira bakarrik.

- **Biztanleak**: 247
- **Euskaldunak**: -

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **10**
- Zintak: **10**
- Pasarteak: **13**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **6**
- Bideoak: **7**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Euskal Herriko Ahotsak
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak



Joaquina Baraibar

Atetz udalerriko Beuntzan sortu zen eta udalerri bereko Zigandara aldatu zen ezkondu zenean.

Andres Baraibar Igoa (1911)

Beuntzan (Atetz) jaioa 1911n. Gurasoak ere biak beuntzarrak zituen.



Jose Antonio Elizondo Erasun (1956)

Atetz udalerriko Aroztegikoa. Ama Labaiengoa eta aita Aroztegikoa. Rosa Mari arrebarekin batera egindako elkarrizketa.

Rosa Mari Elizondo Erasun (1950)



Atetz udalerriko Aroztegikoa. Ama Labaiengoa eta aita Aroztegikoa, baina Urrotzen bizi izandakoa. Iruñerrian bizi da ezkondu zenetik, baina asteburu eta oporrak beti igaro izan ditu herrian. Bere anai Jose Antoniorekin batera egindako elkarrizketa.

Angel Elizondo Redin (1906)

Aroztegin (Atetz) jaioa 1906an. Gurasoak ere biak bertakoak zituen.

Inaxi Erbiti Ibarrola (1928)



Atetz udalerriko Beuntza herrian jaio eta bizi. Aita Etxalekukoa eta ama Beuntzakoa bertakoa. Gurasoak euskaldunak ziren. Ama alargun gelditu zen eta bigarren senarrak ez omen zekien euskaraz. Handik hasi omen ziren etxean gaztelaniaz hitz egiten. Roman Irurita anaiarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Martin Iribarren Sagardia (1902)

Atezko Beratsain kontzejukoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Orokoietakoa (Basaburua).

Roman Irurita Ibarrola (1937)



Atetz udalerriko Beuntza herrian jaio eta bizi. Ikazgintzan ibilitakoa bere denboran. Ama alargun gelditu ostean ezkondu zen Romanen aitarekin. Amaren lehenengo ezkontza horretako arreba duen Ignacia Erbitirekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Maria Marturet Goldaraz (1912)

Eguaratsen (Atetz) jaioa 1912an. Aita bertakoa zuen eta ama Beuntzakoa.



Cristobal Ollo Lizaso

Atetz udalerriko Beratsain herrikoa. Herrian geratzen den azken euskalduna omen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Lanbideak

1.1. "Txirriona" jasotzen zuen ongarritarako

- **Hizlaria(k)**: Iribarren Sagardia, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: ATT-006/001
- **Iraupena**: 0:06:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:06:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
  Natura » Ingurugiroa » Zaborren kudeaketa
- **Laburpena**: Idiekin eta gurdiarekin garraioan ibiltzen zen. "Txirriona" (zaborra) biltzen zuen eta Untzura eraman. Han ongarria egiten zuten.

Transkripzioa
- Untzutik etortzen zinen, e?
- Bai, zazpi kilometro.
- Eta nola etortzen zinen? aber, aber, konta, konta, zer egiten zenuen?
- Nee iri-pariaki(n)? ta karroa, karro bolante äundi oietatik? tortzen nitzen orrea? ta, farola paatzen nue karroan punten? ta kargatzen nun karroa,

sardeaki(n). Eerki kargatu? te, argitzen... asteko bezala? ta, Cuesta... Cuesta de la Reina p'abajo? juan nideien ni, itxe aldea; ni bederatzietako itxea.
- Bai, e?
- Bai, bed(e)ratzietan? itxea juan ya, an zagoen... gosaria prestatuik? gosaldu? te, artu idiek eta karroa, karroa deskargatzea, bertze leku betea. Emendik ematen giñuen asko, tx-, txirriona esaten tzioten orrei.
- Nola?
- Txirriona, erraten ziote.
- Eta hori zer da?
- Basure; Iruñeko, Iruñen e biltzen tzen basure guztie? etzuten aski emen, biltzen, emateko, errietara... oai balaude ola obe luteke!...
- Baina zu, Untzutik, etortzen zinen goizeko ordu batean, handik aterata...
- Ordu batian, andik atra? ta...
- Eta non biltzen zenuen txirriuna?
- Bilduik eoten tzen, montonian paatzen zuten...
- Eta joaten zinen kargatuz...
- Nik? montenetik artu? te... kargatu? te, tira, itxea berris.
- Baina utzi, hemen...
- Nola utzi?
- Non utzi (uzten) zenuen txirriuna?
- Tzirriuna? uzten zuten, karzelatik?... unataxao; karzelako ataritik pasten nitzen ni, te... unataxao, 'cascajera' erraten zioten oi, zelai-zelaie, puskat aundie baze(n)? bah! oai ya dana, oiñ itxeak iñi taude.
- Bai, bai, bai...
- Bai, dena, t'orrea etortzen nitzen ni.
- Orduan, basurari erraten zaio txirriuna, e?
- Tzirriöna... bai.
- Orduan zu, herritik atera, idi-parearekin eta karroarekin; etortzen zinen, ikusten tzirriuna pilaturik, montoiturik zegoen lekuan eta kargatu, ez?
- Ez!
- Sardeakin edo?
- Möntana-, möntanasu egoten tzien, biño ladrillo (b)et ola, ta bertzoat ola paatzen zuten? ta an tzeon karton bat eskrittuik, noena zen. Da ore, kusi ore? ta bueno, "Au de neria". Artu iriek an? ta, arrimatu? te, fuera.
- Eta aurrera?
- Untzure beis...
- E?
- Beis Untzure.
- Bai, bai, bai; eta hori zenbat lekutan, leku aunitzetan egiten zenuen hori?
- Ez, emen, Untzun, Untzun; gero, Gaztellanian ere bai, mutil neon lekutik...
- Non? Gazte...?
- Garzeriain, kaserio bat, Ollakaixketa Bentatik goitixeo, pixkattö batëa.
- Ah, Gartziriain?
- Gartzeriain, Markalaindik beittiago.
- Ah, bai-bai, badakit, badakit bai, non den, bai...
- Untzutik, idieki(n), t'etorri orrara? kaskajerara? –kaskajera erraten zioten: 'torri kaskajerara'–, or, farola paatu karröan punttëan? ta kargatu karröa? ta, argitten asteako? karzeleko ataritik beitti banideien ni... itxe aldea; goizeko bederatzietako? itxea.
- Baina Untzutik honaino, kaskajeraraino, ez zenuen ezer kargatzen...
- Ez-ez-ez, ja ere!
- Hor, hor bakarrik...
- Or, or, or bakarrik.
- Hor zegoen tzirriuna...
- Iruñeko... basure guziek? orrea biltzen zittuten, t'or, por montonetan,

denak eskatuik zauzkiten!... nei biño geiao eskatuik!
- Zuk bakar-bakarrik zurea hartzen zenuen...
- Nik, nerea bakar-bakarra.
- Bertze batzuek ere hartzen zuten.
- Aiek? bakotxak berea, bakotxak berea.
- Eta gero tzirriun(a) hura kargatu, karroan, eta Untzura eraman?
- Untzure eman.
- Eta han, zer egiten zen tzirriunarekin?
- An? itxeko basure... nasi dena? t'ore zen abonoik oben-obena... alorrändako.
- Eta pagatu behar zenuen (zizuten) horregatik?
- Pagatu? bai, pagatzen zuten, eztait zenbat paatzen zuten. Bai, neri? nausiek erraten tzien, launbetetan eitten zittuten lan oiek... launbetero? sabaderos, launbetero ta esan tzien Iruñera, ta ola juntatzen tzien kuadrille bat? eta batek artzen tzuen onbertze tönelada, bertzeak onbertze, bertzeak onbertze... artzen zittuten? ta, etxeraten zenean? arratsean? pues, afaltzeko garaian erraten tzien neri: "Bueno, ya tengo este trabajo pa toda la semana". Puh! no está mal.
- Eta zenbatean behin etortzen zinen? astean behin? larunbatetan?
- Aste guzien igual.
- Egunero?
- Eunero, aste guzien ëunero pasten nittuen nik aste osoa, tortzen nitzela orrea, ta bedratzietako? itxea. Gero? gosaldu eta karroa deskargatu? te... atzera idiak, xo lastu? uzterritik? ta yatera eman, pentsu at o bi? te beis lotu? te, itxeko lanetaa.
- Orduan abono gehiegi, ez? Untzurako, egunoro eramaten baldin bazenuen halako karga handia...
- Ez geiegi! milla tön-, (zuzenduz:) milla kilo biño geigo egune-, eunero eman nittun nik.
- Ez zen gehiegi?
- Ez-ez-ez-ez!... zenbatenas geigo maten tzaion alorräi? tä obeki, garbantzuek etorriko zien, bai; eerki egosten tzien an.
- Garbantzua erraten da?
- Garbantzue, uskeas garbantzue.
- Eta ez duzu beste izen bat aditu, garbantzo errateko? txitxi...
- Txiririoa, uskeas da garbanzue, garbanzo...
- Eta txitxirioa?
- En bascuen(t)ze, uskeras, txitxirioa.
- Erraten zen, e? txitxirioa erraten zen...
- Bai, txitxirioa; ori eosten zen eerki. Oaingo... oaingo abono okeki? eztie egosten ez txitxirioak eta ez alubiek eta ez ixtoriati egosten, len bezala; goorragoak etortzen die.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Euskara gutxi Atetz aldean (ATT-002/002)

Beuntzan gutxi egiten da euskaraz, Ikastolan ikasi duten gazteek badakiten arren. Ignaciaren adinekoek zerbait egiten dute, baina gutxi. Inguruko herrietan are gutxiago. Gurasoek elkarrekin euskaraz egiten zuten eta eurekin, berriz, erdaraz. Etxalekun gehiago egiten da euskaraz.

2. Abeltzaintza urritu da asko (ATT-002/004)

Lehen etxearen goia eta behea haziendaz edo belarrez beteta egoten zen, eta orain dena hutsik. Lehen 28 abeltzain ziren herrian eta orain bi bakarrik. Beuntza eta Beuntzalarrea dira, auzunea bigarrena.

3. Gezurretako eztei-bidaia (ATT-002/006)

Lehengo ezteiak bi egun irauten zuten. Gonbidatuek izara baten gainean jartzen zituzten ekarritako opariak. Gertatutako istorio bat kontatzen du: ezkonberriak kotxea alokatu, bueltatxo bat eman eta atzeko atetik etxera itzuli omen ziren behin.

4. Gizonentzat bakarrik despedida-bazkaria (ATT-002/008)

Ezkontzen zen bikoteak herriko gizonei afaria ordaindu behar izaten zien. Emakumeei ez. Ignaciak erabaki zuen inori ere ez ematea. Gaur egun ezberdinak dira despedidak.

5. Hileta elizkizuna eta bazkaria (ATT-002/010)

Hiletak nola egiten ziren. Oso tragikoa eta tristea izaten zen elizkizuna. Hildakoaren ahaideei etxean ematen zitzaien bazkaria, eta apaizei apaizetxean, baina hildakoaren etxetik eramanda. Zenbait herritan hildakoaren etxean bazkaltzen zuten apaizek ere.

6. Baltseoan egitea debekatuta (ATT-002/012)

Inguruko ermitetan izaten ziren erromeriak. Apaizak ez zuen uzten akordeona jotzen herrian, eta alboko herriko lurretara joaten ziren baltseoan egitera. Etxalekun ere ez zuten luzaroan utzi izan.

7. Ikazkintzan izandako bizipenak (ATT-002/015)

Ez dute ezagutu ikatza egiten herrian, baina Roman ibilia da ikazkintzan beste leku batzuetan. Txondorra nola egiten den. Espartzan behin txondor guztiak erre zitzaizkienekoa kontatzen du.

8. Beuntzako San Juanetakoak, Atetz aldean (ATT-007/001)

San Juan bezperan iratzez, lizarrez eta bestelakoez osatutako sortak bedeinkatzen ziren. Sua egin eta salto egiteko ohitura. Animaliak San Anton egunean bedeinkatzen ziren.

9. Eguaratsen "sarna fuera" leloa baizik ez (ATT-008/001)

San Juan bezperan sua egiteko ohitura. Gainetik salto egin eta "sarna fuera" esaten zuten.

10. San Juanetako ohiturak Aroztegin; inguruko iturrien ospea (ATT-009/001)

San Juan bezperan bedeinkatutako iratzearekin sua egiteko ohitura. Gero, gainetik salto egin eta "sarna fuera" esaten zen. Inguruetako iturri baten aipamena.

11. Txiribiri, Urteberriko uraren inguruko kantinela Aroztegin (ATT-009/002)

Urteberri egunean kantatzen ziren koplak oroitu nahian.

12. Beratsaingo San Juanetan sahatsak bedeinkatu, gurutzeak egiteko (ATT-010/001)

San Juan bezperan sua egiteko ohitura. Gainetik salto egin eta "sarna fuera" esaten zen. Sahatsa bedeinkatzen zen, gurutzeak egiteko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-06

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com